

GIL 145 Angela meatzea (Matienzo)



Angela meatzea itxita dago. Sartzeko, aurrez eskatu behar da baimena.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak (meatzaren sarbidea)**

Lat.: 43°14' 06.30" N

Long.: 3°22' 28.2" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 469.592,00 m

Y: 4.786.991,00 m

- **Koordenatu geografikoak
(aire zabaleko meatzaren sarbidea)**

Lat.: 43°14' 13,40" N

Long.: 3°22' 59,1" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 468.898,00 m

Y: 4.787.215,00 m





Angela meatzeko ganga-aretoak 25 metrotik gorako garaiera du.

Nola iritsi

Angela meatzea Bizkaian dago, Karrantzako udalerriko Matienzo auzoan. Ambasaguas auzoan du sarbidea, Matienzoko errepidetik. 1.500 m egin ondoren, errepidearen bihurgune batean, pista bat hartu behar da ezkerretara, eta, 200 m egin ondoren, meategiaren instalazioetara iritsiko gara. Eskuineko bidea hartu eta 100 m egin ondoren, lurpeko ustiategiaren meazuloetara iritsiko gara. Errepidean jarraitzen badugu Matienzorantz (1.100 m), auzoaren sarrerara iritsiko gara; han, ezkerreko bidea hartuko dugu, eta, 350 m ibili ondoren, aire zabaleko ustiategiaren sarrerara iritsiko gara.

GILaren deskribapen laburra

Angela meatzeko mineralizazio filoniarra El Mazo-el Moro plataformaren ertzeko tupa-rrizko eta kareharri tupatsuzko material urgondarretan txertatuta dago. Bizkaiko mendebaldean garai batean Pb, Zn eta F eman zituzten meatzeetako bat da (Herrero, 1989, Velasco et al., 1994). Filoi-multzo batez osatuta dago; filoien lodiera zentimetrikotik dezimetrikora doa (zain eta brexa tektonikoak), eta galena, esfalerita eta fluorita ditu, kaltzita, smithsonita, hemimorfita eta beste alterazio-mineral batzuekin (Franco, 2012). Ustiaketaren azken urteetan, CEMINSAk 0,1 m-tik 2m-rako lodierako 11 filoitan lan egin zuen, eta, batez beste, lege hauek lortu zituen: fluoritaren % 5, galenaren % 2,85 eta esfaleritaren % 4,47. Oraindik ere erraz ikus daitezke mineral horiek meatzearen hormetan. Interes mineralogiko hutsaz gain, meatzeak baditu espeleotema onak ere.



Estalaktita-kontzentrazio ikusgarria El Soplao de la Leona izeneko tokian, Angela meatzean (Alex Francok lagatako argazkia).

Meatze-multzoak lurpeko eta aire zabaleko ustiategiak ditu. Lurpeko meatzeak meazulo nagusitik abiatzen diren zenbait meazulo pseudohorizontal ditu (sartzeko edo materiala arrastatzeko). Meazuloek (sarbidea eta ustiategia), guztira, 6 km-ko luzera dute (Franco, 2012). Aire zabaleko ustiaketa Matienzo auzotik mendebaldera kokatutako bi meatzetan egin zen (Ipar eta Hego izena zuten). Pb, Zn eta F mineralen lurpeko eta aire zabaleko ustiaketa 1977. urtean bukatu zen.


Beruna erauzteko meatzaritza Brontze Aroan hasi zen eskualde horretan, eta garai horretako zenbait kokagune datatu dira bertan. Badira XVI. mendeko erreferentzia batzuk, “alcohol de vidriero” meatzeen jarduera aipatzen dutenak, eta 1519 eta 1571 urteen artean Pb eta Ag erauzten zela adierazten dutenak (Franco, 2012, López-Horgue et al 2012). Ekoizpenik handieneko aroa 1953-1977 bitartekoa izan zen; 1973an, 70 langile zituen.

Behatzeko punturik onena

In situ. Meatzea bisitarientzat egokitua dago.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 16, GIL 17, GIL 18, GIL 64, GIL 138, GIL 67, GIL 144, GIL 107, GIL 116, GIL 142, GIL 54, GIL 29.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 139, GIL 140, GIL 147, GIL 149.



Meatzearen bisitak dituen interesguneen planoak.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa		●		
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak			●	
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean ●	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					



Matienzoko mineralizazio filoniarren lagin baten itxura (fluorita zuria eta esfalerita marroi-laranja).

Bibliografia espezifikoa

- EEE (2004): *Mina-Museo visitable de Matienzo*. Karrantza (Bizkaia). Argitaratu gabea.
- CRN (2008): *Proyecto de obra para la puesta en seguridad y acondicionamiento de las labores de interior de Mina Ángela en el B° de Matienzo*. Karrantzako harana– Bizkaia. Argitaratu gabea.
- Franco-San-Sebastián, A. (2012): "Puesta en valor de una mina abandonada: Mina Ángela, Karrantza (Bizkaia)", *Macla* 16, 76-77.
- Herrero Rubio, J.M. (1989): *Las mineralizaciones de Zn, Pb, F en el sector occidental de Vizcaya: mineralogía, geoquímica y metalogenia*. Argitaratu gabeko doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, 285 or.
- López-Horgue M. A., Herrero, J. M., Aranburu, A., Yusta, I., Franco, A., Velasco, F. (2012): "El Valle de Carranza (Bizkaia) y su Patrimonio Mineralógico". *Macla* 16, 268-280.
- Velasco, F., Herrero, J. M., Gil, P. P., Alvarez, L. eta Yusta, I. (1994): "Mississippi Valley-type, sedex and Iron deposits in Lower Cretaceous rocks of the Basque- Cantabrian Basin, Northern Spain". In: *Sediment-hosted Zn-Pb ores*. L. Fontboté eta M. Boni, editoreak. Special Publication of the Society for Geology, 10. liburukia, Springer- Verlag, Berlin, 246-270.